



HEZKUNTZA SAILAK IRAKASLEEN BIRBAREMAZIO PROZEDURA IREKI DU BERRIRO

- Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendaren urteko birbaremazio-prozedurari berrekingo zaio. Epe berria: apirilaren 30etik maiatzaren 14ra

Gobernu Kontseiluak gaur eguerdian erabaki du Hezkuntza Sailari lotutako administrazio-prozedura batzuk berriro irekitzea, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu ondoren bertan behera gelditu baitziren.

Errege Dekretu horrek, besteak beste, sektore publikoko erakundeetan prozedurak izapidetzeko epeak etetea ezartzen zuen, eta epe horien zenbaketa geroago hasiko zela adierazten zuen.

Hala ere, aurrerago, beste Errege Dekretu batek honako hau adierazten zuen: "Aipaturiko Errege Dekretu horrek edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen duten unean, sektore publikoko erakundeek erabaki ahal izango dute, arrazoituta, interes orokorra babesteko edo zerbitzuen oinarritzko funtzionamendurako ezinbestekoak diren administrazio-prozedurekin jarraitzea".

Birbaremazio-prozedura

Arrazoi horiek kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak onartu du unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ordezkapenatarako hautagaien zerrendaren urteko birbaremazio-prozedurarekin jarraitzea.

- [Irakasleak](#)
- [Irakasleak ez diren langileak \(Hezkuntza Berezia\)](#)

Prozedura hau **apirilaren 30ean hasiko da berriro, eta maiatzaren 14an amaituko da**. Epe horretan, ordezkapenatarako izangaiek beren aukeretan aldaketak egin, merezimendu berriak aurkeztu edo egoki iritzitako alegazioak edo erreklamazioak egin ahal izango dituzte, hautagai-fitxa ikusita. Birbaremazio-prozesua bide telematikoz egingo da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 29an